



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2007ko otsailaren 27a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:05 **AMAIERA-ORDUA:** 20:26

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba Solabarrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian, Asier Yeregi Campos, Eugino Cotado Iturain, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

- 1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2007ko urtarrilaren 30eko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Motondoko Itxiturako eta inguruko zenbait lursailen salerosketa, eta Alkatetza-Presidentetzari ahalmen zabala ematea salerosketaren eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
- 3.- Ahalmen zabala ematea, egoki bada, Udal honetako Alkatetza-Presidentetzari segregazioaren eskritura publikoa, obra berriaren deklarazioa, jabetza horizontalean zatitzea eta San Nikolas Kalea, 8 zenbakiko –Enbil Enea- izeneko Komunitatearen azkentzea ematea, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
- 4.- Ahalmen zabala ematea, egoki bada, Udal honetako Alkatetza-Presidentetzari Orioko Haur-eskolaren obra berriaren izendapenaren eskritura publikoa emateko.
- 5.- Hartzea, egoki bada, Orioko Iturbide Kaleko 12 zenbakidun eraikinaren Jabekideen Komunitateak egindako eskaerari dagozkion udalbatzarraren akordioak.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan babes ofizialeko 36 etxebizitza exekutatzeko proiektua.
- 7.- Onartzea, egoki bada, “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan proiektatutako babes ofizialeko 36 etxebizitzaren exekuzio” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta adjudikatzeko modua lehiaketa bidez.
- 8.- Aldatzea, egoki bada, Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan udal sustapeneko 39 erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen adjudikaziorako Oinarri Arautzaileak.
- 9.- Eskariak eta galderak.



Esan-Eginak

1.- IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO URTARRILAREN 30EKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Alkateak proposatuta, gai hau erretiratu egiten da aztergai zerrendatik, ez delako posible izan 2007ko urtarrilaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa prestatzea.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, MOTONDOKO ITXITURAKO ETA INGURUKO ZENBAIT LURSAILEN SALEROSKETA, ETA ALKATETZA-PRESIDENTETZARI AHALMEN ZABALA EMATEA SALEROSKETAREN ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Haziendako eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileek egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV) eta Genoba (EAJ-PNV), zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZAZPI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute eta Legarra (EA), Azkue (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO HIRU BOTO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA Motondoko Itxiturako eta inguruko zenbait lursailen salerosketa, eta Alkatetza-Presidentetzari **AHALMEN ZABALA EMATEA** salerosketaren eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa. Salerosketaren prezioa 2.061.471,52 €-koa da.



3.- AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL HONETAKO ALKATETZA-PRESIDENTETZARI SEGREGAZIOAREN ESKRITURA PUBLIKOA, OBRA BERRIAREN DEKLARAZIOA, JABETZA HORIZONTALLEAN ZATITZEA ETA SAN NIKOLAS KALEA, 8 ZENBAKIKO –ENBIL ENEA- IZENEKO KOMUNITATEAREN AZKENTZEA EMATEA, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

AHALMEN ZABALA EMATEA Udal honetako Alkatetza-Presidentetzari segregazioaren eskritura publikoa, obra berriaren deklarazioa, jabetza horizontalean zatitzea eta San Nikolas Kalea, 8 zenbakiko –Enbil Enea- izeneko Komunitatearen azkentzea ematea, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

4.- AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL HONETAKO ALKATETZA-PRESIDENTETZARI ORIOKO HAUR-ESKOLAREN OBRA BERRIAREN IZENDAPENAREN ESKRITURA PUBLIKOA EMATEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:



AHALMEN ZABALA EMATEA Udal honetako Alkatetza-Presidentetzari Orioko Haur-eskolaren obra berriaren izendapenaren eskritura publikoa emateko.

19:10ak direlarik, Eugenio Cotado Iturain zinegotzia bertaratzen da eta ondoko gaien eztabaidan parte hartzen du.

5.- HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ITURBIDE KALEKO 12 ZENBAKIDUN ERAIKINAREN JABEKIDEEN KOMUNITATEAK EGINDAKO ESKAERARI DAGOZKION UDALBATZARRAREN AKORDIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZORTZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute eta Legarra (EA), Azkue (EA) eta Cotado (EA) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO HIRU BOTO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- LAGATZEA, dohainik eta mugagabeko izaeraz, Orioko Iturbide kaleko 12 zenbakidun eraikineko sotoko lokalaren erabilera eta gozamen eskubidea aipatu eraikinaren Jabekideen Komunitatearen alde. Aipatu sotoko lokala, ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen 199.1 artikuluan ezarritako araudi legala egoki betez, hau da, segurtasun, osasun, apaingarri publiko eta begiramen baldintzatan mantentzeko, kontserbatu eta birgaitzeko beharrezko diren lan eta obrak eginaz, bizitzeko edota erabilera errealerako beharrezko diren baldintzak mantenduz, aldeztuz aurretik Udal Bulegoetan eskaera eginaz eta, hala badagokio, dagokion obretarako udal lizentzia lortuz.



Lagatze honek Orioko Iturbide kaleko 12 zenbakidun eraikinaren Jabekideen Komunitatearen alde, aipatu lokalaren erabilera eta gozamen eskubidea darama batik bat, Orioko Udalak gutxienez azken hogeita bost urteetan etengabeko edukitza izan duelako, jabe gisa eta fede onez.

2.- Udalbatzarraren erabaki honek indarra izateko, baldintza hau izango da: goian aipatutako terminotan egindako lagatzea propio onartu behar du Iturbide kaleko 12 zenbakidun eraikinaren Jabekideen Komunitateak. Horretarako, Jabekideen batzordeak, jabetza horizontalaren alorrean indarrean dagoen legediak ezartzen duen quorumarekin, lagapena onartu behar du hiru hilabeteko gehienezko epean, erabaki honen berri jakinarazten zaien egunetik kontatzen hasita. Horrela egiten ez badu, udalbatzarraren erabaki hau indargabe geratuko da eta ez du inolako eragin juridikorik izango.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA-U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B4 PARTZELAN BABES OFIZIALEKO 36 ETXEBIZITZA EXEKUTATZEKO PROIEKTUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan babes ofizialeko 36 etxebizitza exekutatzeoko proiektua . Proiektua Jon Arregi Uranga eta Emilio Barrero Hidalgo (ARKITALDE, SL) arkitektoek idatzi dute eta bere kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 2.842.521,44 eurokoa da (BEZ barne).

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA-U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B4 PARTZELAN PROIEKTATUTAKO BABES OFIZIALEKO 36 ETXEBIZITZEN EXEKUZIO” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO



**PARTIKULARRAK, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ
ETA ADJUDIKATZEKO MODUA LEHIAKETA BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan proiektatutako babes ofizialeko 36 etxebizitzaren exekuzio” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta adjudikatzeke modua lehiaketa bidez.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailtza.

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren azalpena:

Orioko – Hondartza- A.I.U. 3 Hirigintza Iharduera Eremuan babeskuntza ofizialeko 36 etxebizitza eraikitzeke obrak egitea, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

- b) Exekuzio epea:

Epea, guztira, 24 hilabetekoa izango da.

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Arrunta.
- c) Era: Lehiaketa.



4.- Lizitazioaren kopurua.

3.041.013,54 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

5.- Garantiak.

Behin-behinekoa: 60.820,27 euro

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Kontratistaren sailkapena.

- Taldea C, azpitaldea 2, kategoria c.

- Taldea C, azpitaldea 4, kategoria c.

8.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. DONOSTIA.

9.- Eskaintzak aurkezteko.

a) Epea: 26 egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitzetan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

10.- Eskaintzen irekiera.

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita laugarrenengo laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

8.- ALDATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO A.I.U.3-KO -HONDARTZA-U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B5 ETA 2B6 PARTZELETAN UDAL



**SUSTAPENeko 39 ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA
TASATUEN ADJUDIKAZIORAKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ALDATZEA Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan udal sustapeneko 39 erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen adjudikaziorako Oinarri Arautzaileak, honako zentzu honetan: familia ugarietzako kupo espezifiko bat egokitzea, 2B5 partzelan proiektatutako etxebizitza bat (orden zenbakia: 19, 3 zenbakidun portala, 2. A) adjudikatzeko. Etxebizitza horrek 117,90 m²ko azalera erabilgarria du eta lau logelatakoa da.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Aztergai zerrendatik kanpo, eta bertaratutako udalbatzarkideek alde zuzenetik aho batez urgentziazkoak izendatu ondoren, Udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu.

10.- BERRESTEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK HARTUTAKO ERABAKIA, BERE ESTATUTUEN 3. ARTIKULUA ALDATZEARI BURUZ.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

BERRESTEA Urola Kostako Udal Elkarteak hartutako erabakia, bere estatutuen 3. artikulua aldatzeari buruz. Artikulu hori Udal Elkartearen sede soziala aldatzeari buruzkoa da.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ZARAUZKO URTETA HONDAKINDEGIKO 2000 METRO KOADROKO LANDA LURRETAN ZATITU GABEKO BOSTEN BATEN SALEROSKETA ETA ALKATE-PRESIDENTEARI AHALMEN ZABALA EMATEA AGINDUZKO ESKRITURA PUBLIKOA IZENPETU DEZAN ORIOKO UDALAREN IZENEAN.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Urola Kostako Udal Elkarteko presidenteari proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

1.- ONARTZEA Zarauzko Urteta hondakindegiko 2000 metro koadroko landa lurretan zatitu gabeko bosten baten salerosketa. Salerosketaren helburua honako hau da: bertako erreka egoki desbideratzea eta, horren ondorioz, hondakindegia edukiera handitzea. Salerosketaren prezioa, zatitu gabeko bosten bati dagokionez, 1.200 eurokoa da.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA Orioko alkate Ramon Etxeberria Aldazi, goiko puntuan aipatutako finkaren salerosketaren aginduzko eskritura publikoa izenpetu dezan, Orioko Udalaren izenean; hori guztia, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatu arte.

Horrenbestez, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta hogeita sei minutu izanik, eta erabakitako guztia



ORIOKO UDALA
ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta
2007/02/27

jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen
ONTZAT EMANAREKIN.

ALKATEA

IDAZKARIA